



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2025eko maiatzaren 13a

63. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru-lege proposamenak:

- 11-25/PRO-00010. Foru-lege proposamena, Nafarroan etxebizitza ordainerraza izateko eskubideari buruzkoa (horren bidez, Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legea eta Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testuategina onesten duen uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretua aldatzen dira). Osoko Bilkurak aintzat hartu du (3. or.).
- 11-25/PRO-00010. Foru-lege proposamena, Nafarroan etxebizitza ordainerraza izateko eskubideari buruzkoa (horren bidez, Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legea eta Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testuategina onesten duen uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretua aldatzen dira). Zuzenketak aurkezteko epea (4. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- 11-25/ITP-00013. Interpelazioa, mugikortasun jasangarriari buruzkoa. Antonio Javier Lecumberri Urabayen jaunak egin du (5. or.).
- 11-25/ITP-00014. Interpelazioa, familia, lana eta bizitza pertsonala bateragarri egitearen arloko politikari buruzkoa. Marta Álvarez Alonso andreak egin du (6. or.).

F SAILA:

Galderak:

- 11-25/POR-00163. Galdera, Eliza Katolikoak immatrikulatutako landa-lurzoruko herri-ondasunen gaineko ikerketari buruzkoa. Carlos Guzmán Pérez jaunak egin du (7. or.).
- 11-25/POR-00164. Galdera, NUPeko udalez gaindiko plan sektorialaren hirigintza-koordinaziorako hitzarmenari buruzkoa. Mikel Zabaleta Aramendiak egin du (8. or.).
- 11-25/POR-00165. Galdera, 1/2025 Foru Lege-dekretua, maiatzaren 7koa, Nafarroako administrazio publikoetan behin-behinekotasuna murrizteko langileen arloko aparteko eta premiazko neurriak onesten dituen, onesteari buruzkoa. María Teresa Esporrín Las Heras andreak egin du (9. or.).

- 11-25/POR-00166. Galdera, "AA pertsonen zerbitzuan" goiburuari buruzkoa. Kevin Lucero Domingues jaunak egin du (9. or.).
- 11-25/POR-00167. Galdera, Navarra Innovation Week-en lehenbiziko edizioari buruzkoa. Kevin Lucero Domingues jaunak egin du (10. or.).
- 11-25/POR-00168. Galdera, Emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa eta arreta koordinatzen duen erakundeen arteko akordioari buruzkoa. María Aranzazu Biurrun Urpegui andreak egin du (10. or.).
- 11-25/POR-00169. Galdera, I+G+b arloko inbertsio publikoan egindako murrizketei buruzkoa. Ángel Ansa Echegaray jaunak egin du (11. or.).
- 11-25/POR-00170. Galdera, Skolae III programako edukiei buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (11. or.).
- 11-25/POR-00171. Galdera, Euskaraldiaren laugarren edizioaren ospakizunaren balorazioari buruzkoa. Pablo Azcona Molinet jaunak egin du (12. or.).
- 11-25/POR-00172. Galdera, administrazio publikoan euskara-eskakizuna daukaten lanpostu gehiago egoteak dakartzan neurriei buruzkoa. Mikel Asiain Torres jaunak egin du (12. or.).
- 11-25/POR-00173. Galdera, Europarekiko interkonexio elektrikoak handitzeak Nafarroan eta Nafarroako industriari izanen lituzkeen ondorioei buruzkoa. Mikel Asiain Torres jaunak egin du (13. or.).
- 11-25/POR-00174. Galdera, Europako Next Generation SEM funts esleituetatik betetzeke dagoen % 40ari buruzkoa. Ángel Ansa Echegaray jaunak egin du (14. or.).
- 11-25/POR-00175. Galdera, adingabe migratzaileei harrera egiteko koordinazio-zentro berrien kokapenari buruzkoa. Cristina López Mañero andreak egin du (14. or.).
- 11-25/POR-00176. Galdera, nekazaritza-kudeaketaren foru-eredua babesteko neurri errealei buruzkoa. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egin du (15. or.).
- 11-25/POR-00177. Galdera, adingabe migratzaileei harrera egiteko zentro berrien kokapenari buruzkoa. Emilio Jiménez Román jaunak egin du (15. or.).
- 11-25/POR-00178. Galdera, errenta bermatua aldatzeko bileren egutegia bidaltzeari buruzkoa. Raquel Garbayo Berdonces andreak egin du (16. or.).
- 11-25/POR-00179. Galdera, Esako urtegiaren eskuin hegalararen segurtasunari buruzkoa. Laura Aznal Sagasti andreak egin du (16. or.).
- 11-25/POR-00180. Galdera, Nafarroako bisitarien eta gastu turistikoaren hazkundeari buruzko azken datuak finkatzeko eta hobetzeko neurri eta proiektuei buruzkoa. Ramón Alzórriz Goñi jaunak egin du (17. or.).
- 11-25/POR-00181. Galdera, Bidean abian jartzeari buruzkoa. Daniel López Córdoba jaunak egin du (17. or.).
- 11-25/POR-00182. Galdera, Nafarroan errenta bermatuari lotutako zehapen-espeditenteei buruzkoa. Emilio Jiménez Román jaunak egin du (18. or.).
- 11-25/POR-00183. Galdera, nafarrek beren osasun-sistemari buruz egiten duten ebaluazioari buruzkoa. José Javier Esparza Abaurrea jaunak egin du (18. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- 11-25/ACOP-00009. Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren Erabakia, zeinaren bidez bat egiten baitu Euskaraldia dinamikarekin (19. or.).

H SAILA:**Bestelako testu arau-emaileak:**

- 11-25/DLF-00001. Foru Lege-dekretua, maiatzaren 7koa, Nafarroako administrazio publikoetan behin-behinekotasuna murrizteko langileen arloko aparteko eta premiazko neurriak onesten dituen (20. or.).

B saila:
FORU-LEGE PROPOSAMENAK

11-25/PRO-00010. Foru-lege proposamena, Nafarroan etxebizitza ordainerraza izateko eskubideari buruzkoa (horren bidez, Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legea eta Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duen uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretua aldatzen dira)

OSOKO BILKURAK AINTZAT HARTU DU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2025eko maiatzaren 8an egindako bilkuran, erabaki zuen aintzat hartzea Nafarroan etxebizitza ordainerraza izateko eskubideari buruzko foru-lege proposamena (horren bidez, Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legea eta Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duen uztailaren 26ko 1/2017

Legegintzako Foru Dekretua aldatzen dira). Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa, Nafarroako Alderdi Sozialista, EH Bildu Nafarroa eta Geroa Bai talde parlamentarioek aurkeztu zuten, eta 2025eko apirilaren 4ko 43. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-25/PRO-00010. Foru-lege proposamena, Nafarroan etxebizitza ordainerraza izateko eskubideari buruzkoa (horren bidez, Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legea eta Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duen uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretua aldatzen dira)

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko maiatzaren 12an egindako bilkuran, bestek beste honako erabaki hau hartu zuen:

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2025eko maiatzaren 8an egindako bilkuran, erabaki zuen aintzat hartzea Nafarroan etxebizitza ordainerraza izateko eskubideari buruzko foru-lege proposamena (horren bidez, Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legea eta Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duen uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretua aldatzen dira). Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa, Nafarroako Alderdi Sozialista, EH Bildu Nafarroa eta Geroa Bai talde parlamentarioek aurkeztu zuten, eta 2025eko apirilaren 4ko 43. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 121, 122 eta 168. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Xedatzea presako prozeduraz izapidetu dadin Nafarroan etxebizitza ordainerraza izateko

eskubideari buruzko foru-lege proposamena (horren bidez, Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legea eta Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duen uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretua aldatzen dira).

2. Proposamen horri buruz irizpena emateko eskumena Etxebizitza, Gazteria eta Migrazio Politiketako Batzordearen esku uztea.

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik **bost egun baliouduneko epea irekiko da, 2025eko maiatzaren 21eko 12:00etan bukatuko dena**. Epe horretan, Erregelamenduko 168. artikuluan ezarritakoarekin bat, talde parlamentarioek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dizkiote foru lege proposamen horri.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

11-25/ITP-00013. Interpelazioa, mugikortasun jasangarriari buruzkoa

ANTONIO JAVIER LECUMBERRI URABAYEN JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko maiatzaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Antonio Javier Lecumberri Urabayen jaunak egindako interpelazioa, mugikortasun jasangarriari buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Javier Lecumberri Urabayenek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako interpelazio hau aurkezten dio

Nafarroako Gobernuko lehendakariari, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Zioen azalpena

Mugikortasun jasangarria funtsezko zutabea da Nafarroa irisgarriago, osasungarriago eta ingurumenarekin konprometituago baterantz aurrera egiteko. Gaur egun, garraio-eredu eraginkorrago, garbiago eta inklusiboago baterantz goaz, konponbide berritzaile, inklusibo eta jasangarrien aldeko apustua eginez.

Une erabakigarria bizitzen ari gara: Nafarroa urrats garrantzitsuak egiten ari da norabide horretan, eta herritar guztientzako mugikortasun eraginkorrago, garbiago eta ekitatiboago baterako norabidea berresten ari da.

Horregatik, mugikortasun jasangarriaren arloan Nafarroako Gobernuak darabilen politikei buruzko interpelazio hau aurkezten dugu.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 7an

Foru parlamentaria: Javier Lecumberri Urabayen

11-25/ITP-00014. Interpelazioa, familia, lana eta bizitza pertsonala bateragarri egitearen arloko politikari buruzkoa

MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko maiatzaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak egindako interpelazioa, familia, lana eta bizitza pertsonala bateragarri egitearen arloko politikari buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Marta Álvarez Alonso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, familia, lana eta bizitza pertsonala bateragarri egitearen arloko politikari buruzko interpelazioa aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Zioen azalpena:

Lana, bizitza pertsonala eta familia bateragarri egitea sustatzeko politikak oso-oso garrantzitsuak dira familien ongizatea hobetzeko, eta, aldi berean, enpleguaren produktibitatea, genero-berdintasuna eta jaiotza-tasaren igoera bultzatzeko. Zeregin horretan, Nafarroako Gobernuak zeresan handia du, eta horregatik aurkezten da interpelazio hau.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 8an

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

F saila:
GALDERAK

11-25/POR-00163. Galdera, Eliza Katolikoak immatrikulatutako landa-lurzoruko herri-ondasunen gaineko ikerketari buruzkoa

CARLOS GUZMÁN PÉREZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko maiatzaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Guzmán Pérez jaunak egindako galdera, Eliza Katolikoak immatrikulatutako landa-lurzoruko herri-ondasunen gaineko ikerketari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko Carlos Guzmán Pérezek, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Jakin dugu Nafarroako Gobernuak ikerketa bat hasi duela Eliza Katolikoak immatrikulatutako landa-lurzoruko herri-ondasunei buruz, zeinen titulartasuna toki-erakundeek erreklamatzeko modukoa baita.

Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak ikerketa bat hasi du Eliza Katolikoak immatrikulatutako landa-lurzoruko herri-ondasunei buruz, zeinen titulartasuna toki-erakundeek erreklamatzeko modukoa baita. Zertan da ikerketa hori?

Iruñean, 2025eko apirilaren 30ean

Foru parlamentaria: Carlos Guzmán Pérez

11-25/POR-00164. Galdera, NUPeko udalez gaindiko plan sektorialaren hirigintza-koordinaziorako hitzarmenari buruzkoa

MIKEL ZABALETA ARAMENDIAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko maiatzaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Zabaleta Aramendiak egindako galdera, NUPeko udalez gaidiko plan sektorialaren hirigintza-koordinaziorako hitzarmenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Mikel Zabaleta Aramendia jaunak, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako Departamentuko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak, 2025eko urtarrilaren 22ko bilkuran, hitzarmen bat onetsi zuen, Iruñeko Udalaren, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren (NUP) eta Foru Komunitatearen artekoa, unibertsitate-erakundearen campusaren Udalez Gaidiko Plan Sektorialaren eta Iruñeko Udal Plan Orokorren arteko koordinazio urbanistikorako.

Orobat, jendaurreko aldia hasi zen, hogeitau egun baliodunekoa, 2025eko urtarrilaren 23ko 15. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zenetik aurrera zenbatzen hasita.

Epe hori igarota, eta behin organo eskudunek hitzarmena behin betiko onetsita, galdera hau egiten du Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako Departamentuko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Iruñeko Udalak, Nafarroako Unibertsitate Publikoak (NUP) eta Foru Komunitateak hitzarmen bat onetsi zuten unibertsitate-erakundearen campusaren Udalez Gaidiko Plan Sektorialaren eta Iruñeko Udal Plan Orokorren arteko koordinazio urbanistikorako; zer balorazio egiten du kontseilariak hitzarmen horri buruz?

Iruñean, 2025eko maiatzaren 7an

Foru parlamentaria: Mikel Zabaleta Aramendia

11-25/POR-00165. Galdera, 1/2025 Foru Lege-dekretua, maiatzaren 7koa, Nafarroako administrazio publikoetan behin-behinekotasuna murrizteko langileen arloko aparteko eta premiazko neurriak onesten dituen, onesteari buruzkoa

MARÍA TERESA ESPORRÍN LAS HERAS ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko maiatzaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Esporrín Las Heras andreak egindako galdera, 1/2025 Foru Lege-dekretua onesteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikita dagoen Maite Esporrín Las Heras andreak, Parlamentuko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nola uste duzu eginen diola mesede Osasun Departamentuari maiatzaren 7ko 1/2025 Foru-lege-Dekretua, Nafarroako administrazio publikoetan behin-behinekotasuna murrizteko langileen arloko aparteko eta premiazko neurriak onesten dituen, onetsi izanak?

Iruñean, 2025eko maiatzaren 7an

Foru parlamentaria: Maite Esporrín Las Heras

11-25/POR-00166. Galdera, "AA pertsonen zerbitzuan" goiburuari buruzkoa

KEVIN LUCERO DOMINGUES JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko maiatzaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Kevin Lucero Domingues jaunak egindako galdera, "AA pertsonen zerbitzuan" goiburuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikita dagoen Kevin Lucero Domingues jaunak, Parlamentuko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Joan den 2025eko maiatzaren 6an, asteartea-rekin, eginiko "Teknologia pertsonen zerbitzura" biltzar arrakastatsuen harira, zeina NAIR Centerrek (Navarra Artificial Intelligence Research Center) sustatu baitzuen:

Nola ari da lanean Gobernua biltzarraren leloak zioen eran "pertsonen zerbitzura dagoen AA" bat izateko?

Iruñean, 2025eko maiatzaren 7an

Foru parlamentaria: Kevin Lucero Domingues

11-25/POR-00167. Galdera, Navarra Innovation Week-en lehenbiziko edizioari buruzkoa

KEVIN LUCERO DOMINGUES JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko maiatzaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Kevin Lucero Domingues jaunak egindako galdera, Navarra Innovation Week-en lehenbiziko edizioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikita dagoen Kevin Lucero Domingues jaunak, Parlamentuko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitalako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Maiatzaren 19tik 24ra, Navarra Innovation Week delakoaren lehenengo edizioa egingen da Foru Komunitateko zenbait lekutan. Berrikuntzaren inguruko jardueraz jositako astea izanen da, eta horiek topaleku izanen dira Nafarroan dagoen jakintza, sormen eta talenturako.

Zer helburu lortu nahi ditu Nafarroako Gobernuak gisa horretako ekitaldiak eginez?

Iruñean, 2025eko maiatzaren 7an

Foru parlamentaria: Kevin Lucero Domingues

11-25/POR-00168. Galdera, Emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa eta arreta koordinatzen duen erakundeen arteko akordioari buruzkoa

MARÍA ARANZAZU BIURRUN URPEGUI ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko maiatzaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Aranzazu Biurrun Urpegui andreak egindako galdera, Emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa eta arreta koordinatzen duen erakundeen arteko akordioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

andreak, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, lehen lehendakariorde eta Lehendakaritzako eta Berdintasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Emakumeen kontrako indarkeriaren arreta eta prebentzioa koordinatzeko erakunde arteko akordioak bi hamarkada daramatza lanean, eta azkena 2017an sinatu zen.

Haren azken jarraipen-bileraren ostean, lehendakariak iragarri zuen erakunde arteko akordioa berritu eta hobetu egingen zela.

Zer helburu lortu nahi dira erakunde arteko akordioaren berritze horrekin, eta zer epe aurreikusten da hori eguneratzeko?

Iruñean, 2025eko maiatzaren 8an

Foru parlamentaria: Arantza Biurrun Urpegui

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikita dagoen Arantza Biurrun Urpegui

11-25/POR-00169. Galdera, I+G+b arloko inbertsio publikoan egindako murrizketei buruzkoa

ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko maiatzaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Eche garay jaunak egindako galdera, I+G+b arloko inbertsio publikoan egindako murrizketei buruzkoa.
2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.
3. Unibertsitate, Berrikuntza eta Eraldaketa Digitaleko Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Ángel Ansa Eche garay jaunak honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuko Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariari, Batzordean erantzun dezan:

Zergatik murriztu duzue, azken 2 urteotan, I+G+b-ren alorreko inbertsio publikoa, kontutan hartuta hori funtsezkoa dela Nafarroako Foru Komunitatearen garapen ekonomikorako eta lehiakortasunerako?

Iruñean, 2025eko maiatzaren 8an

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Eche garay

11-25/POR-00170. Galdera, Skolae III programako edukiei buruzkoa

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko maiatzaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak egindako galdera, Skolae III programako edukiei buruzkoa.
2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.
3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Nafarroako Alderdi Popularra (PPN) talde parlamentarioaren eledun Javier García Jiménez jaunak, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak datorren maiatzaren 15ean, ostegunarekin, eginen den Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Lehendakariaren iritziz, Skolae III programa berriaren edukiek betetzen al dituzte epai judizialak, bermatze aldera hezitzaileen eskubidea, hala nahi izanez gero programa ez aplikatzekoa?

Iruñean, 2025eko maiatzaren 8an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

11-25/POR-00171. Galdera, Euskaraldiaren laugarren edizioaren ospakizunaren balorazioari buruzkoa

PABLO AZCONA MOLINET JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko maiatzaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pablo Azcona Molinet jaunak egindako galdera, Euskaraldiaren laugarren edizioaren ospakizunaren balorazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Pablo Azcona Molinet jaunak, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko bigarren lehendakariorde eta Memoria

eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilari Ana Ollok datorren maiatzaren 15eko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Datorren maiatzaren 15ean Euskaraldiaren laugarren edizioa hasiko da. Gizarte-mugimendua da, xede duena euskararen erabilera aktibatzea eta hizkuntza-ohiturak aldaraztea, gehiago hitz egin dadin euskaraz. Jakina da Nafarroako Gobernuak bat egin duela Euskaraldiaren laugarren edizio honekin; hain zuzen ere, joan den martxoan, exekutiboak berri egin zuen Taupa Euskaltzaleen Mugimenduarekin duen hitzarmena, Nafarroan euskara bultzatzea xede duena.

Hori horrela, hau galdetzen diogu bigarren lehendakariorde eta Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilariari: zer balorazio egiten du ekimen horri eta sinatutako hitzarmenari buruz?

Iruñean, 2025eko maiatzaren 8an

Foru parlamentaria: Pablo Azcona Molinet

11-25/POR-00172. Galdera, administrazio publikoan euskara-eskakizuna daukaten lanpostu gehiago egoteak dakartzan neurriei buruzkoa

MIKEL ASIAIN TORRES JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko maiatzaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Asiain Torres jaunak egindako galdera, administrazio publikoan euskara-eskakizuna daukaten lanpostu gehiago egoteak dakartzan neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Mikel Asiain Torres jaunak, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko bigarren lehendakariorde eta Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilari Ana Ollok datorren maiatzaren 15eko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Gure komunitateko hizkuntza-politika nabarmen eraldatu zen 2015etik aurrera: baliabide ekonomikoak eta giza baliabideak areagotu dira handitzen ari den eskariari jarraikiz, bai eta aurreko gobernuak esparru horretan jardun ez izanak eragindako urtetako atzerapenagatik ere.

Duela zenbait egun iragarritako neurrien araber, areagotu egingen dira administrazio publikoan euskara profila izanen duten lanpostuak, hila-betetako lanaren eta negoziazioaren ostean.

Hori horrela, hau galdetzen diogu bigarren lehendakariorde eta Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilariari: zer

balorazio egiten du neurri horiei buruz, eta zer onura ekarriko dizkiete gure komunitateko herritarrei, eta euskaldunei bereziki?

Iruñean, 2025eko maiatzaren 8an

Foru parlamentaria: Mikel Asiain Torres

11-25/POR-00173. Galdera, Europarekiko interkonexio elektrikoak handitzeak Nafarroan eta Nafarroako industrian izanen lituzkeen ondorioei buruzkoa

MIKEL ASIAIN TORRES JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko maiatzaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Asiain Torres jaunak egindako galdera, Europarekiko interkonexio elektrikoak handitzeak Nafarroan eta Nafarroako industrian izanen lituzkeen ondorioei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Mikel Asiain Torresek, Parlamentuko Erregelamenduak xedatzen duenaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuo Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilari Mikel Irujo Amezagak maiatzaren 15eko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Joan den apirilaren 28ko itzalaldiak erreakzio sozial eta politiko askotarikoak eragin zituen. Horri dagokionez, inork ez du zalantzan jartzen interkonexioek garrantzi handia dutela ez dadin berriz gerta egun hartan bizitakoaren gisako egoerarik.

Ildo horretatik, duela zenbait egun, Barkos senatariak Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako ministro Aagesen andreaki galdetu zion ea Gobernuak bazuen asmorik Europako gainerako herrialdeekiko interkonexio elektrikoak areagotzeko ahaleginak bizkortzeko, joan den 2025eko apirilaren 28an penintsulan gertatutako itzalaldiaren ostean.

Erantzuna baiezkoa izan zen; ministro eta lehendakariorde hirugarrenak erantzun zuen Gobernuak konpromiso irmoa duela, harentzat gai estrategikoa delako.

Hori horrela, hau galdetzen diogu Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitaleko kontseilariari:

Zer balorazio egiten duzu konpromiso horri buruz, eta zer ondorio izanen ditu Europarekiko interkonexio hori areagotzeak Nafarroan oro har, eta industrian zehazki?

Iruñean, 2025eko maiatzaren 8an

Foru parlamentaria: Mikel Asiain Torres

11-25/POR-00174. Galdera, Europako Next Generation SEM funts esleituetatik betetzeke dagoen % 40ari buruzkoa

ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko maiatzaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak egindako galdera, Europako Next Generation SEM funts esleituetatik betetzeke dagoen % 40ari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuko lehendakariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroak oraindik exekutatu gabe du esleitu-tako Next Generation SEM funts europarren % 40 baino gehiago; zergatik da hori?

Iruñean, 2025eko maiatzaren 8an

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

11-25/POR-00175. Galdera, adingabe migratzaileei harrera egiteko koordinazio-zentro berrien kokapenari buruzkoa

CRISTINA LÓPEZ MAÑERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko maiatzaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina López Mañero andreak egindako galdera, adingabe migratzaileei harrera egiteko koordinazio-zentro berrien kokapenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikita dagoen Cristina López Mañero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariak iragarri zuenez, datozen hiletan orientazio- eta harrera-zentro berriak irekiko dira Nafarroan datozen hiletan iristea espero den bidaidetik gabe dauden adingabe migratzaileak artatzeko; zer udalerritan eta zehazki zer tokitan ezarriko dira zentro horiek eta kontseilariak aipatutako gainerako plazak?

Iruñean, 2025eko maiatzaren 8an

Foru parlamentaria: Cristina López Mañero

11-25/POR-00176. Galdera, nekazaritza-kudeaketaren foru-eredua babesteko neurri errealei buruzkoa

MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko maiatzaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egindako galdera, nekazaritza-kudeaketaren foru-eredua babesteko neurri errealei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikia dagoen eta Nafarroako Gortee-tako kide den Miguel Bujanda Cirauqui jaunak honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Bruselan eztabaida abiarazi da, heldu den finantza-esparruan Nekazaritza Politika Bateratutik bereizitako zutabe gisa FEAGA eta FEADER desager daitezkeela-eta. Nafarroako Gobernuak zer jarrera defendatzen du eta zer neurri ezarriko ditu nekazaritza-kudeaketako foru-eredua babesteko eta laguntzen birzentralizazio isilpekoa ekiditeko?

Iruñean, 2025eko maiatzaren 8an

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

11-25/POR-00177. Galdera, adingabe migratzaileei harrera egiteko zentro berrien kokapenari buruzkoa

EMILIO JIMÉNEZ ROMÁN JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko maiatzaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Emilio Jiménez Román jaunak egindako galdera, adingabe migratzaileei harrera egiteko zentro berrien kokapenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gobernuko lehendakari Chivite andreari:

Nafarroako Gobernuko lehendakari hori, Legebiltzarrean jakin dugunez adingabe etorkinentzako harrera-zentro berriak irekiko direla, honako hau galdetzen dut: non kokatuko dira zentro horiek?

Iruñean, 2025eko maiatzaren 8an

Foru-parlamentaria: Emilio Jiménez Román

11-25/POR-00178. Galdera, errenta bermatua aldatzeko bileren egutegia bidaltzeari buruzkoa

RAQUEL GARBAYO BERDONCES ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko maiatzaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Raquel Garbayo Berdonces andreak egindako galdera, errenta bermatua aldatzeko bileren egutegia bidaltzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Raquel Garbayo Berdonces andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako Eskubide Sozialetako kontseilariak Legebiltzarraren hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Duela zenbait hilabete iragarri zenuen errenta bermatuaren aldaketari buruzko bileren egutegia bidaliko zenigula. Noiz bidaliko diguzu?

Iruñean, 2025eko maiatzaren 8an

Foru parlamentaria: Raquel Garbayo Berdonces

11-25/POR-00179. Galdera, Esako urtegiaren eskuin hegalaren segurtasunari buruzkoa

LAURA AZNAL SAGASTI ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko maiatzaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Laura Aznal Sagasti andreak egindako gaurkotasun handiko galdera, Esako urtegiaren eskuin hegalaren segurtasunari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Laura Aznal Sagasti EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko bozeramaileak, Parlamentuko Mahaiaren aurrean, jakinarazi du maiatzaren 15eko Osoko Bilkurarako gaurkotasun handiko galdera honako hau izango dela:

Gobernuak uste al du, Ebroko Konfederazio Hidrografikoak Esako urtegiaren eskuineko hegala "egonkortzeko" edo "finkatzeko" 47 milioi euroko obrak egingo dituela iragarri ondoren, urtegi horren azpian dauden Nafarroako populazioen segurtasuna bermatuko dela, bereziki Zangozako?

Iruñean, 2025eko maiatzaren 11an

Foru parlamentaria: Laura Aznal Sagasti

11-25/POR-00180. Galdera, Nafarroako bisitarien eta gastu turistikoaren hazkunderari buruzko azken datuak finkatzeko eta hobetzeko neurri eta proiektuei buruzkoa

RAMÓN ALZÓRRIZ GOÑI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko maiatzaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ramón Alzórriz Goñi jaunak egindako gaurkotasun handiko galdera, Nafarroako bisitarien eta gastu turistikoaren hazkunderari buruzko azken datuak finkatzeko eta hobetzeko neurri eta proiektuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioaren eledun Ramón Alzórriz Goñi jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilariari zuzendua, 2025eko maiatzaren 15eko Osoko Bilkurako gai-zerrendan sar dadin:

Nafarroako bisitarien eta gastu turistikoaren hazkunderari buruzko azken datuen arabera, zer neurri eta proiektu ari dira garatzen datu horiek finkatzeko eta hobetzeko?

Iruñean, 2025eko maiatzaren 12an

Foru parlamentaria: Ramón Alzórriz Goñi

11-25/POR-00181. Galdera, Bidean abian jartzeari buruzkoa

DANIEL LÓPEZ CÓRDOBA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko maiatzaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Daniel López Córdoba jaunak egindako gaurkotasun handiko galdera, Bidean abian jartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko Daniel López Córdoba, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Osasuneko kontseilariak 2025eko maiatzaren 15eko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Nafarroako Gobernuak duela bi urte erabaki zuen Nafarroako osasun-garraio publikoaren kudeaketa bere gain hartzea, enpresa publiko bat sortuz. Administrazio-epeak bete ondoren, joan den astean iragarri zen enpresa maiatzaren 31n hasiko dela funtzionatzen.

Zer balorazio egiten duzu Bidean enpresa publikoa abian jartzeari buruz?

Iruñean, 2025eko maiatzaren 12an

Foru parlamentaria: Daniel López Córdoba

11-25/POR-00182. Galdera, Nafarroan errenta bermatuari lotutako zehapen-espedienteei buruzkoa

EMILIO JIMÉNEZ ROMÁN JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko maiatzaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Emilio Jiménez Román jaunak egindako gaurkotasun handiko galdera, Nafarroan errenta bermatuari lotutako zehapen-espedienteei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Gaurkotasun handiko galdera, 2025eko maiatzaren 15eko Osoko Bilkurarako:

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilari andrea, zenbat zehapen-espediente abiarazi dira Nafarroan errenta bermatua dela-eta? Zenbat diru berreskuratu da behar ez bezala kobratutako dirutik?

Iruñean, 2025eko maiatzaren 12an

Foru-parlamentaria: Emilio Jiménez Román

11-25/POR-00183. Galdera, nafarrek beren osasun-sistemari buruz egiten duten ebaluazioari buruzkoa

JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko maiatzaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak egindako gaurkotasun handiko galdera, nafarrek beren osasun-sistemari buruz egiten duten ebaluazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioaren eledun José Javier Esparza Abaurrea jaunak gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarrek egiten duten ebaluazioaren arabera, Espainiako osasun-sistema onena izatetik Espainiako hamazazpi erkidegoetan hamahirugarrena izatera igaro da. Nola baloratzen duzu hori?

Iruñean, 2025eko maiatzaren 12an

Foru parlamentaria: José Javier Esparza Abaurrea

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

11-25/ACOP-00009. Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren Erabakia, zeinaren bidez bat egiten baitu Euskaraldia dinamikarekin

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko maiatzaren 12an egindako bilkuran, bestek beste honako erabaki hau hartu zuen:

Lehena:

1. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak bat egiten du Euskaraldia dinamikarekin, eta Nafarroako Foru Komunitatean euskara erabilia izatearen aldeko sustapen-lanarekiko bere konpromisoa indartzen du.

2. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak euskaraz badakiten eta/edo ulertzen duten herritar guztiei dei egiten die Euskaraldian parte hartzera, halatan eguneroko bizitzan hizkuntza erabiltzeko guneak sortzen laguntzeko.

3. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak bertako ordezkari eta langileei dei egiten die Euskaraldia ekimena dela-eta Legebiltzarrean egitekoak diren jardueretan parte har dezaten, horrela hizkuntzaren erabilera faboratuko duten hizkuntz ohiturak sustaturik.

Bigarrena:

Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

H saila:
BESTELAKO TESTU ARAU-EMAILEAK

11-25/DLF-00001. Foru Lege-dekretua, maiatzaren 7koa, Nafarroako administrazio publikoetan behin-behinekotasuna murrizteko langileen arloko aparteko eta premiazko neurriak onesten dituen

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko maiatzaren 12an egindako bilkuran, besteak beste honako erabaki hau hartu zuen:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 21. bis artikulua aitortzen dion eskumena erabiliz, Nafarroako Gobernuak onetsi du 1/2025 Foru Lege-dekretua, maiatzaren 7koa, Nafarroako administrazio publikoetan behin-behinekotasuna murrizteko langileen arloko aparteko eta premiazko neurriak onesten dituen, 2025eko maiatzaren 13ko 63. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua. Nafarroako Parlamentuari igorri dio, horrek baliozkotu dezan.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 182. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Xedatzea 2025eko maiatzaren 22ko Osoko Bilkuran eginen direla maiatzaren 7ko 1/2025 Foru Lege-dekretua baliozkotu edo indargabetzeari buruzko eztabaida eta bozketa. Foru lege-dekretu horren bidez Nafarroako administrazio publikoetan behin-behinekotasuna murrizteko langileen arloko aparteko eta premiazko neurriak onesten dira.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezzen erabaki hau eta aipatutako foru lege-dekretua.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

1/2025 Foru Lege-dekretua, maiatzaren 7koa, Nafarroako administrazio publikoetan behin-behinekotasuna murrizteko langileen arloko aparteko eta premiazko neurriak onesten dituen

ZIOEN AZALPENA

Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legearen bidez, enplegu publikoan dagoen behin-behinekotasun handia murrizteko beharrezkoak diren egiturazko erreformak egin ziren, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planarekin bat. Plan horrek Europako Batzordearen aldeko ebaluazioa jaso du. Lege horrek administrazio publikoetako aldi baterako enplegua egonkortzeko prozesu bat egitea aurreikusten zuen, helburua baita enplegu publikoan dagoen behin-behinekotasuna murriztea eta gehienez ere % 8ko egiturazko behin-behinekotasuna lortzea administrazio publiko guztietan.

Aipatutako abenduaren 28ko 20/2021 Legeak, hamargarren xedapen gehigarrian, xedatzen zuen hura Nafarroako Foru Komunitatean aplikatuko zela Konstituzioaren 149.1.18 artikuluan eta lehengo xedapen gehigarrian eta Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoan ezarritako moduan.

Ildo horretan, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 49.1 artikulua araber, Nafarroari dagokio Foru Komunitateko funtzionario publikoen estatutu araubidearen gaineko eskumen eskusiboa, Estatuko oinarriko legeriak sektore publikoko langileei onartzen dizkien funtsezko eskubideak eta betebeharrak errespetatuz.

Eskumen horri jarraikiz eman zen maiatzaren 23ko 2/2022 Foru Lege-dekretua, zeinaren bidez neurriak hartzen baitziren Nafarroako Administrazio Publikoetan egonkortze prozesuak egiteko, Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legearen ondorioz. Foru lege-dekretu hori baliozkotu eta foru lege proiektu gisa izapidetu zen, eta horren emaitza izan zen uztailaren 1eko 19/2022 Foru Legea.

2024ko abenduaren 31 baino lehen amaitu behar zuten egonkortze prozesuei lotutako neurriek nolabaiteko eraginkortasuna izan dute. Aurrekoa gorabehera, hartutako neurriak ez dira nahikoak izan behin-behinekotasuna murrizteko aipatutako % 8ko helburutik behera. Gainera, egiaztatu da hautapen eta lanpostuak betetzeko prozedurak arautzen dituen araudiaren zenbait alderdik, bai eta administrazio egoeretakoez ere, ez dutela ahalbidetzen behin-behinekotasun tasak murriztea, ezarritako helburua lortu arte.

Premia horri erantzuteko, borondatezko eszedentzia arautzeari dagokionez, ez da aplikatu Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bateginaren 26. artikulua (abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen), foru lege-dekretu honek indarra hartu eta bi urteko epean.

Proposatutako aldaketek, zehazki, aldi bat ezartzen dute sarrerako hautapen prozedura batean parte hartu duten pertsonen lortutako plazan egon beharra borondatezko eszedentzia eskatu ahal izan aurretik; hala, bermatuko da benetan lan eginen dela parte hartu den hautapen prozeduran eskuratutako plazan, gutxienez aldi batez, plaza hori berriro bete aurretik.

Era berean, beste administrazio publiko batean zerbitzuak egiteko borondatezko eszedentzia ematea kasu honetara mugatzen da: xedeko administrazioan egin beharreko zerbitzuak finkoak izatea.

Hala ere, aurretik xedatutakotik salbuetsita geratzen dira Nafarroako toki entitateak.

Beste alde batetik, egoera horretatik lanera itzuliko dela ziurtatzeko, egun jakin batean sartzea aurreikusen da, aurrekontu-zuzkidura duen eta hautapen prozesu batean sartuta ez dagoen plaza huts bat dagoenean, araudia errealitate praktikora egokituz.

Horren ondotik, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bateginaren 88. artikulua aldatzen da; izan ere,

beharrezkoa da araudia argitzea kontuan hartuta Nafarroan aplikatu beharreko araudia eta lekualdatze-lehiaketen deialdia sarrerako deialdien aurretik egin beharra. Zehazki, hirugarren apartatuan, plaza hutsak betetzeko kontratuen azkentze orokortua ekar lezaketzen interpretazio murriztaileak saihesteko, zehazten da administrazio-kontratudun langileek aldi baterako betetzen duten plazan jarraitu ahal izanzen dutela, baldin eta plaza hutsa behin betiko betetzeko prozedura bat –izan sartzeko prozedura, izan lanpostua betetzeko prozedura– argitaratu bada kontratazioaren egunetik zenbatzen hasita hiru urteko epean.

Era berean, egonkortze prozeduren izapidetze elektronikoa esker, egiaztatu ahal izan da prozedurak ebazteko teknologia berriak erabiltzea oro har efizientea dela. Hori dela eta, sartzeko hautapen prozesuei eta lekualdatze-lehiaketei dagokionez, administrazio bideak errazteko neurriak hartzen dira, prozesu horiek behar duten azkartasuna ziurtatzeko. Neurri horien bidez, epeak murriztuko dira, eta izapide-egintzak Nafarroako Aldizkari Ofizialaren bidez argitaratu ordez, web-fitxen bidez argitaratuko dira. Horrek aukera ematen du aldi baterako langileek betetako plaza hutsak betetzeko prozedurak arintzeko.

Ildo beretik, lekualdatze-lehiaketak are arinago ebazteko, lanpostuko antzintasuna eta hizkuntzak baino ez dira baloratzen. Datu horiek, oro har, Administrazioaren esku daude, edo oso dokumentazio gutxi ematea eskatzen dute.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari dagokionez, kategoria batzuetan profesional gutxi daudenez, komeni da egoera horren ondorioak arinduko dituzten neurriak ezartzea.

Alde horretatik, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari atxikitako langileen berariazko erregimena arautzen duen urriaren 20ko 11/1992 Foru Legearen 31. artikulua aldatzen da, aukera emateko oposizio sistema aplikatzeko, antzintasun txikiagoa duten pertsonen errazteko osasun arloan hutsik dauden plazetan sartzea, arauan aurreikusitako baldintzetan.

Halaber, aipatutako urriaren 20ko 11/1992 Foru Legearen 29.3 artikulua aldatzen da, barne har dezan, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari atxikitako langileei dagokionez, testu bateginaren 88. artikuluan Nafarroako Administrazio Publikoetako langile guztientzat oro har ezarritako arau-azalpen bera.

Gainera, lekualdatze-lehiaketen ebazpena arintzeko, bi urtez eteten da Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan sartzea eta lanpostuak betetzea arautzen duen azaroaren 22ko 347/1993 Foru

Dekretuaren 21. artikulua 1.3 apartatuaren aplikazioa, eta aldi baterako erregulazio berri bat ezarzen da, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileentzat xedatutakoaren baldintza berberetan.

Horren guztiaren ondorioz, foru lege-dekretu honek administrazio publikoen zerbitzura dauden langileak arautzeko Nafarroako Foru Komunitatean dagoen araudi propioa aldatu nahi du.

Zehazki, foru lege-dekretu honek honako arau hauei eraginen die: Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bategina (abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen); Nafarroako Osasun Zerbitzua-Osasunbideari atxikitako langileen berariazko erregimena arautzen duen urriaren 20ko 11/1992 Foru Legea; Nafarroako Administrazio Publikoetako lanpostuak betetzeko Erregelamendua onesten duen azaroaren 6ko 215/1985 Foru Dekretua, eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan sartu eta bertako lanpostuak betetzeko modua arautzen duen azaroaren 22ko 347/1993 Foru Dekretua.

Proiektua Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko langile funtzionarioen eta estatutupekoen Negoziazio Mahai Orokorrera eraman da, 2025eko martxoaren 21ean eta apirilaren 10ean, 16an eta 23an.

Azaldutako arrazoiek foru lege-dekretu hau onestea eskatzen dute, aparteko eta premiazko beharizanaren ondorioz aipatutako neurriak berehala hartzeko, justifikazio memorian luze azaltzen den bezala.

Azkenik, kontuan harturik foru lege-dekretu honek ukitzen dituela Nafarroako administrazio publiko guztiak, eta hortaz, baita toki entitateak ere, Toki Araubidearen Foru Batzordeak proiektua aztertu zuen, eta txostena eman, 2025eko maiatzaren 5ean.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 21 bis artikuluan jasotako baimena erabiliz, Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilariak eta Osasuneko kontseilariak proposaturik, eta Nafarroako Gobernuak bi mila eta hogeita bosteko maiatzaren zazpian egindako bilkuran hartutako erabakiarekin bat etorriz,

DEKRETATZEN DUT:

1. artikulua. Abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako

Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bategina aldatzea.

Bat. Aldatzen da abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsirik Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bateginaren 9. artikulua. Honela gelditu da:

“9. artikulua.

Funtzionario izateko, bata bestearen ondoren baldintza hauek bete beharko dira:

a Hautapen probak gainditzea.

b Agintari eskudunak egindako izendapena. Izendapena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da.

c Zin egin edo hitz ematea Nafarroako Foru Araubidea begiratu, Konstituzioa eta legeak onartu, eta karguari atxikirik dauden eginbeharrak zintzo beteko dituela.

d Plazaren jabetza hartzea, izendapen ebazpean horretarako zehazten den egunean, aski justifikaturik dauden kasuetan izan ezik”.

Bi. Aldatzen da abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsirik Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bateginaren 30. artikulua. Honela gelditu da:

“30. artikulua.

Plaza gorderik ez duten funtzionarioak zerbitzura itzuliko dira plaza hutsak daudenean, baldin eta sartzeko hautapen prozedurarako deialdi batean sartuta ez badaude”.

Hiru. Aldatzen da abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsirik Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bateginaren 88.3 artikulua. Honela gelditu da:

“88. artikulua.

3. Artikulu honen lehen apartatuaren b) letran xedatutako kasuan, administrazio-kontratudun langileek betetako plaza hutsak betetzeko, lanpostuak betetzeko edo mugigarritasunerako arauz aurreikusitako mekanismoetako edozein erabili beharko da.

Hala ere, langilea administrazio-araubidean kontratatu zenetik hiru urte igarotakoan, kontratua azkenduko da, eta karrerako funtzionarioek soilik betetzen ahalko dute plaza huts hori, kasuan kasuko hautapen prozesua hutsik geratu ezean; kasu horretan, langileak berriro kontratatzen ahalko dira administrazio-araubidean.

Salbuespenez, administrazio-kontratadun langileek aldi baterako betetzen duten plazan jarraitu ahal izanen dute, baldin eta plaza hori lan eskaintza publiko batean sartu bada eta sartzeko edo lanpostuak betetzeko dagokion deialdia argitaratu bada, kontratazioaren egunetik zenbatzen hasita hiru urteko epean. Kasu horretan, deialdia ebatzi arte bete ahal izanen du, eta kargu-uzteak ez du konpentsazio ekonomikorik ekarriko”.

Lau. Hogeita zortzigarren xedapen gehigarria gehitzen da abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsiriko Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bateginean.

“Hogeita zortzigarren xedapen gehigarria.

1. Nafarroako Administrazio Publikoek deitutako sarrerako hautapen prozesuen izapideak eta jarduketak epe hauen arabera izanen dira:

a) Deialdian parte hartzeko eskabideak aurkezteko epea: 20 egun natural.

b) Deialdian onartutako eta baztertutako behin-behineko zerrendei alegazioak aurkezteko epea: 10 egun baliodun.

c) Behin-behineko emaitzei alegazioak aurkezteko epea: 5 egun baliodun.

d) Prozeduran parte hartzeko betebeharrak egiaztatzeko eta eskaintako lanpostu hutsak aukeratzeko epea: 10 egun baliodun.

e) Funtzionario izendatzeko edo, hala badagokio, lan-kontratadun finko gisa kontratatuzeko behar den dokumentazioa aurkezteko epea: 10 egun baliodun, izendapen edo kontratazio proposamena argitaratzen denetik aurrera.

2. Prozeduran onartutako eta baztertutako pertsonen behin-behineko nahiz behin betiko zerrendak eta hautatutako pertsonak izendatzeko proposamena dagokion deialdiaren web-fitxan argitaratuko dira.

3. Izendapen-ebazpenean ezartzen den egunean hartuko dute plazen jabetza hautatutako pertsonak, aski justifikaturik dauden kasuetan izan ezik”.

Bost. Hogeita bederatzigarren xedapen gehigarria gehitzen da abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsiriko Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bateginean.

“Hogeita bederatzigarren xedapen gehigarria.

1. Administrazio publikoek deitutako lekualdatze-lehiaketako prozesuen izapideak eta jarduketak epe hauen arabera izanen dira:

a) Prozeduran parte hartzeko eskabideak aurkezteko epea: 10 egun natural.

b) Deialdian onartutako eta baztertutako behin-behineko zerrendei alegazioak aurkezteko epea: 5 egun baliodun.

c) Merezimenduen behin-behineko balorazioari alegazioak aurkezteko epea: 5 egun baliodun.

d) Lanpostu hutsak aukeratzeko epea: 5 egun baliodun.

2. Prozeduran onartutako eta baztertutako behin-behineko eta behin betiko zerrendak deialdiaren web-fitxan argitaratuko dira. Baztertutako inor ez badago, zuzenean onetsiko da onartuen behin betiko zerrenda, eta aginduko da argitara dadila deialdiaren web-fitxan”.

Sei. Azken xedapena gehitzen da abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsiriko Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bateginean.

“Azken xedapena.

Izapidetze epeak dituzten hogeita zortzigarren eta hogeita bederatzigarren xedapen gehigarriak Nafarroako Gobernuak eguneratu ahal izanen ditu erregelamenduzko arauen bidez”.

2. artikulua. Nafarroako Administrazio Publikoetako lanpostuak betetzeko erregelamendua onesten duen azaroaren 6ko 215/1985 Foru Dekretua aldatzea.

Bat. Nafarroako Administrazio Publikoetako lanpostuak betetzeko erregelamendua onesten duen azaroaren 6ko 215/1985 Foru Dekretuaren 9. artikulua aldatzen da. Honela gelditu da:

“9. artikulua.

1. Lekualdatze-lehiaketetan, gehienez 46 puntuko balioa izanen duen eskala baten barnean, honako elementu hauek baloratuko dira, eta honek banatuta:

a) Antzintasuna deialdiaren xede den lanpostuan, dagokion administrazioan, 1 puntu urteko: gehienez 40 puntu.

Urteen kopurua osoa ez bada, emanen da zerbitzuan egindako aldiari proportzioan dagokion puntuazioa.

Deialdia argitaratu ondoren egindako zerbitzuak ez dira baloratuko.

b) Frantsesa, ingelesa edo alemana jakiteagatik (Europar Batasuneko laneko hizkuntzak diren aldetik): 2 puntu gehienez, hizkuntza horietako bakoitzeko.

Apartatu honetan alegatutako merezimenduak baloratuko dira lanpostuaren edukiarekin zerikusia badute soilik.

Deialdi bakoitzean zehaztuko da zer plazatan baloratzen diren b) apartatu honetan ezarritako merezimenduak, banan-banan aztertu ondoren plaza horien ezaugarri espezifikoak.

2. Aurreko apartatuan ezarritakoaz gain, euskararen ezagutza baloratuko da plazak dauden eremuaren arabera, honako irizpide hauei jarraikiz:

a) Eremu euskaldunean: 4,6 puntu gehienez.

b) Eremu mistoan: 2,76 puntu gehienez.

Deialdi bakoitzean zehaztuko da eremu misto-ko zein plazatan baloratzen den euskararen ezagutza, herritarrei ematen zaien arreta- edo tratu-mailaren arabera, plaza horien ezaugarri espezifikoak banan-banan aztertu ondoren. Balorazio horretatik kanpo geldituko dira euskara jakitea nahitaezkoa duten plazak.

3. Aurreko apartatuetan aipatzen diren elementuak baloratzeko, jarraituko zaie erregelamendu honi eta, erregelamendu hau garatzeko administrazio publiko bakoitzeko organo eskudunak onartzen dituen merezimenduen baremoei.

4. Lekualdatze-lehiaketan deialdien oinarrietan, ezarri daiteke lehiakideek gainditu behar dutela prestakuntza ikastaro bat”.

Bi. Nafarroako Administrazio Publikoetako lanpostuak betetzeko erregelamendua onesten duen azaroaren 6ko 215/1985 Foru Dekretuaren 39. artikulua aldatzen da. Honela geldituko da:

“39. artikulua.

Lehiaketan parte hartzen dutenen puntuazioan berdinketarik gertatuz gero, administrazio publikoetan zerbitzuak egiten antzinasun handiena duten pertsonen alde ebatziko da. Berdinketak jarraitzen badu, kalifikazio epaimahaiak horretarako berariaz eginen duen zozketa bakar baten bidez erabakiko da”.

3. artikulua. Nafarroako Osasun Zerbitzua-Osasunbideari atxikitako langileen berariazko erregimenari buruzko urriaren 20ko 11/1992 Foru Legea aldatzea.

Bat. Urriaren 20ko 11/1992 Foru Legearen 29.3 artikulua aldatzen da (foru lege horren bidez Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari atxi-

kitako langileen berariazko erregimena arautzen da). Honela geldituko da:

“3. Artikulu honen lehen apartatuaren b) letran xedatutako kasuan, administrazio-kontratudun langileek betetako plaza hutsak betetzeko, lanpostuak betetzeko edo mugigarritasunerako arauz aurreikusitako mekanismoetako edozein erabili beharko da.

Hala ere, langilea administrazio-araubidean kontratatu zenetik hiru urte igarotakoan, kontratua azkenduko da, eta karrerako funtzionarioek soilik betetzen ahalko dute plaza huts hori, kasuan kasuko hautapen prozesua hutsik geratu ezean; kasu horretan, langileak berriro kontratatzen ahalko dira administrazio-araubidean.

Salbuespenez, administrazio-kontratudun langileek aldi baterako betetzen duten plazan jarraitu ahal izanen dute, baldin eta plaza hori lan eskaintza publiko batean sartu bada eta argitaratu bada sartzeko, lanpostuak betetzeko edo aurreko egokitzapenari dagokion deialdia, kontratazioaren egunetik zenbatzen hasita hiru urteko epean. Kasu horretan, deialdia ebatzi arte bete ahal izanen du, eta kargu-uzteak ez du konpentsazio ekonomikorik ekarriko”.

Bi. Urriaren 20ko 11/1992 Foru Legearen 31. artikulua aldatzen da (foru lege horren bidez Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari atxikitako langileen berariazko erregimena arautzen da). Honela geldituko da:

“31. artikulua.

1. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko langile izateko hautapena deialdi publiko bidez eginen da, eta dagozkion hautapen probak oposizio edo oposizio-lehiaketa bidez eginen dira.

Salbuespenez, merezimendu-lehiaketaren sistema erabili ahal izanen da osasun arloko fakultatibo espezialistei dagozkien A mailako plazak direnean, baldin eta horietan jarduteko bereziki kualifikatutako ezagutzak behar badira.

Sarrerako salbuespenezko prozedura bat denez, Osasun Departamentuak sartzeko horien berri emanen dio Nafarroako Parlamentuari, plazaz jabetu eta hurrengo hiru hilabeteen barruan.

Oposizio sistema erabili ahal izanen da deialdia onesteko unean hutsik dauden eta deialdia egin aurreko urtearen erdia baino gehiago hutsik egon diren plazak betetzeko, Osasuneko Mahai Sektorialari alde aurretik jakinarazita.

2. Eraginkortasun arrazoiak direla-eta oposizio-lehiaketa bidezko hautapen prozedura aukeratzen

denean, prozedurak dituen ondoz ondoko bi faseen ordena aldatu ahal izanen da.

Osasun arlokoak ez diren estamentuetan sartzeko, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko langileentzat modu orokorrean ezarritako araudia aplikatuko da”.

3. Deialdien oinarrietan ezarri ahal izanen da lehiaketa fasea bazterzailea izanen dela. Lehiaketa faseari emandako puntuazioak ezin izanen du inola ere gairitu oposizio-lehiaketa osoan lor daitekeen gehieneko puntuazioaren % 40, eta lehiaketa fasean lortutako puntuazioa ezin izanen da aplikatu oposizio faseko ariketak gainditzeko”.

4. artikulua. Nafarroako administrazio publikoetan behin-behinekotasuna murrizteko borondatezko eszedentzien araubidea arautzea.

Eteten da abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bateginaren 26. artikulua aplikazioa, bi urteko epean, foru lege-dekretu honek indarra hartzen duenetik aurrera.

Ondorioz, bi urteko aldi horretan, borondatezko eszedentziei honako araudi hau aplikatuko zaie:

“1. Borondatezko eszedentzia deklaritzen ahalko da, funtzionarioek eskatuta, ondoko kasu hauetan:

a) Zerbitzuak egiten hasten bada beste administrazio publiko batean edo langilearena ez den beste administrazio baten mendekoa den eta berezko nortasun juridikoa duen entitate batean, baldin eta gutxienez bi urtez jardunean edo egoera parekatuan egon bada, plazaren jabetza hartzen denetik kontatzen hasita.

Apartatu honetan xedatutakotik salbuetsiko dira Nafarroako toki entitateetako funtzionarioak, borondatezko eszedentziaren modalitate hori lortu ahal izanen baitute beste administrazio publiko batean edo nortasun juridiko propioa duen beste administrazio baten mendeko erakunde batean zerbitzuak ematen hasten badira.

b) Administrazio publiko beraren baitan, maila bereko edo desberdineko beste lanpostu bat eskuratzen duen funtzionarioak, unitate organiko burutza edo zuzendaritza direnak izan ezik, bietako bat aukeratu beharko du, eta beste lanpostuan borondatezko eszedentzian deklaratzeko eskatzen ahalko du.

c) Interesdunak aldeztetik eskatuta, borondatezko eszedentzian deklaratu dira administrazio publiko berean maila bereko edo desberdineko

beste lanpostu batean aldi baterako zerbitzuak egiten hasten diren funtzionarioak, lehen hemezortzi hilabeteetan betetzen zuten plaza gordeta, baldin eta gutxienez bi urtez jardunean edo antzeko egoeran egon badira, funtzionarioen araubideko plazaz jabetzen direnetik zenbatzen hasita.

d) Alderdi politikoetan edo erakunde sindikal edo profesionaletan zuzendaritza karguetan aritzeko, baldin eta kargu horietan aritzea eta funtzio publikoan lan egitea bateragarriak ez badira.

e) Funtzionarioaren interes partikularrengatik, jatorrizko plaza hemezortzi hilabetez gordeko da, zerbitzuaren beharrek horretarako bidea ematen badute eta egiaztatzen baldin bada eskaera egin aurreko bi urteetan, gutxienez, jardunean edo horren antzeko lan egoera batean aritu dela, funtzionarioen araubideko plazaz jabetzen direnetik zenbatzen hasita.

2. Borondatezko eszedentziak ez du denbora mugarik izanen, hura ematen den kasu guztietan.

3. Borondatezko eszedentzian dauden funtzionarioek ezin izanen dute zerbitzura itzultzea eskatu, egoera horretan urtebete egin arte. Lanera itzultzea erabaki ondoren, ezarritako egunean itzuli beharko dira. Hala egin ezean, langileak galdu egingen du funtzionario izaera.

4. Borondatezko eszedentzian daudenean lortutako maila, gradua eta antzintasuna gordeko dituzte, baina ez dute eskubide ekonomikorik sortuko eta ez zaie kontatuko, inongo ondorioetarako, egoera horretan eman duten denbora.

5. artikulua. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren eremuan behin-behinekotasuna murrizteko lekualdatze-lehiaketaren araubidea arautzea.

Eteten da Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan sartzea eta lanpostuak betetzea arautzen duen azaroaren 22ko 347/1993 Foru Dekretuaren 21. artikulua 1.3 apartatuaren aplikazioa, bi urteko epean, foru lege-dekretu honek indarra hartzen duenetik denetik aurrera.

Ondorioz, bi urteko aldi horretan, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren lekualdatze-lehiaketei honako araudi hau aplikatuko zaie:

“Lekualdatze-lehiaketetan, gehienez 46 puntuoko balioa izanen duen eskala baten barnean, honako elementu hauek baloratuko dira eta hone-lan banatuta:

a) Antzintasuna deialdiaren xede den lanpostuan, dagokion administrazioan, 1 puntu urteko: gehienez 40 puntu.

Urteen kopurua osoa ez bada, emanen da zerbitzuan egindako aldiari proportzioan dagokion puntuazioa.

Deialdia argitaratu ondoren egindako zerbitzuak ez dira baloratuko.

b) Frantsesa, ingelesa edo alemana jakiteagatik (Europar Batasuneko laneko hizkuntzak diren aldetik): 2 puntu gehienez, hizkuntza horietako bakoitzeko.

Apartatu honetan alegatutako merezimenduak baloratuko dira lanpostuaren edukiarekin zerikusia badute soilik.

Deialdi bakoitzean zehaztuko da zer plazatan baloratzen diren b) apartatu honetan ezarritako merezimenduak, banan-banan aztertu ondoren plaza horien ezaugarri espezifikoak.

Aurreko apartatuan ezarritakoaz gain, euskararen ezagutza baloratuko da plazak dauden eremuaren arabera, honako irizpide hauei jarraikiz:

- a) Eremu euskaldunean: 4,6 puntu gehienez.
- b) Eremu mistoan: 2,76 puntu gehienez.

Deialdi bakoitzean zehaztuko da eremu mistoko zein plazatan baloratzen den euskararen ezagutza, herritarrei ematen zaien arreta- edo tratu-mailaren arabera, plaza horien ezaugarri espezifikoak banan-banan aztertu ondoren. Balorazio hori ez da eginen euskararen ezagutza nahi-taetzkoa den plazetan”.

Xedapen gehigarri bakarra.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak 2025eko maiatzean eginen du barne-egokitzapeneko edo lekualdaketa lehiaketarako

deialdia, gaur egun egiten ari diren enplegu publiko eskaintzetako lanpostuei dagozkienak.

Xedapen indargabetzaile bakarra. Araudia indargabetzea.

Indarrik gabe gelditzen dira foru lege-dekretu honetan ezarritakoaren kontrakoak diren maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak.

Azken xedapenetako lehena. Erregelamendu mailako babesa.

Foru lege-dekretu honek aldatzen dituen erregelamenduzko arauetan jasotako zehaztapenak aldatu ahal izanzen dira haiek jasotzen dituen aruari dagokion erregelamendu mailako arauen bidez.

Azken xedapenetako bigarrena.–Nafarroako Parlamentura igortzea.

Foru lege-dekretu hau Nafarroako Parlamentura igorriko da baliozkotu dezan, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 21. bis artikuluan ezarritakoaren arabera.

Azken xedapenetako hirugarrena. Indarra hartzea.

Foru lege-dekretu honek indarra hartuko du Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 7an

Nafarroako Gobernuako lehendakaria: María Chivite Navascués

Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilaria: Amparo López Antelo

